



DANON ARTEAN ZAINITZA EKOSISTEMA BAT SORTZEN Talde eragilearen bigarren saioa

Usurbil, 2021-06-21



BERTARATUTAKOAK eta SAIOAREN EGITURA

BERTARATUTAKOAK	
1. Belen	Zaintzaile familiarra
2. Andoni	Herritarra
3. Jacinta	Herritarra
4. Beatriz	Esperientzia eskola
5. Maider	DYA
6. Amaia	Etxez-etxeko laguntza zerbitzua
7. Oihane	Eguneko zentrua
8. Aitziber	Egoitza
9. Maria	Gizarte zerbitzuak
10. Itziar	Zinegotzia
11. Agurtzane	Alkatea
12. Miren	Emagin
13. Xanti	Foru Aldundia
14. Ainhoa	Adinberri
15. Maider	Matia
16. Ainara	Matia

SAIOAREN EGITURA
<ul style="list-style-type: none">• Ongietorria• Aurreko saioan landutako edukien laburpena• Herriko eragileen mapaketa• Etxean Biziko bideoa• Saioaren ebaluaketa

AURREKO SAIOAREN LABURPENA

ZAINTZAREN INGURUKO DINAMIKAREN LABURPENA

Talde eragilearen lehen saioan zaintza nola ulertzen dugun bateratzeko dinamika bat eraman zen aurrera, eta saio honetan bertan azaldutako ildo nagusien laburpen bat egin zen lehenik:

Norberaren desioak errespetatzea: zaintza duintasunez, tratu onez, enpatiaz, gizatasunez, maitasunez eta konfindantzaz ematea, zaindua den pertsona gurea balitz bezala zainduz. Pertsonak pertsona izaten jarraitzen dut zaintza behar izanda ere. Zaintza behar izanda ere komunitateko partaide izaten jarraitzen sentitzea.

Laguntza eta beharrak. Laguntza hau ematea, erantzunkizun handi bat da. Laguntza hau burutu ahal izateko, **familiaren** garrantzia ageri da. Familiak jasaten duten karga, pisua, estresa ageri da. Ordutegiek honetan duten eragina ere aipatzen da.

Autozainketaren garrantzia aipatu da, zaintza jaso duen pertsona eta zaintza eskaintzen duenengan ere. Arrisku honen aurrean, zaintza burutzeko nahia, gogoia, garrantzitsutzat jotzen da.

Norbere zaintzaz gain, **inguruaren babesa** ere beharrezkoa ikusten dute, pertsonaren inguruan zaintza sare bat izateak eskaintzen duen babesa. Bertan komunitateak hartzen duen garrantzia ere azaleratu da. Belaunaldien arteko harremanak. Gure burua eta komunitatea autogobernatzeko oinarria. Behar sozialak ezin dira soilik administrazioetik erantzun, komunitate, boluntario sareak, bizilagunen arteko harremanak,... beharrezkotzat jo dira.

Eragileen arteko koordinazioa funtsezkotzat jo dute gai honetan eraldaketa bat lortu nahi baldin bada, **baliabide publiko-pribatuak** era koordinatu batean aritzea eta herritarrei informazioa helaraztea ere ezinbestekotzat jotzen dute.

Zaintza **emakume zaintzaileak** sostengatua dela kontutan izatea eta zaintzari lotutako **lan baldintzak** eraldatzeko beharra. Duintasuna zaintzan eta zaintzaileetan, zaintza bere osotasunean duintzeko, langileen gaitasunak, formazioa, baldintzak duintzetik datozela aipatzen da.

Zaintzen **ikasteko** beharra (zaintza ikasketa prozesu bat bezala ulertzen delarik) eta baita formakuntza jasotzea gai honekin zerikusia duten eragile desberdinei. **Partekatzeko espazioak izatearen** beharra.



Zaintza sistema eraldatzeko beharra. Ekosistema eraketa, izaera pribatua duen eremutik atera eta beste balio, publiko, politiko, ekonomiko eta soziala eman, pertsonen beharretara egokitutako zaintza eredu berritzaileak. Kompetentzien hesiak gainditu beharra. Tokiko erabakiak indartu, udalentsat finantziarioa handitu, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa, etxean zaintzeko eredu egokia, beste eredu bateruntz. Komunitatea- administrazioa-familiaren arteko oreka. Eredu feminista. Politika publiko eraginkorrak. Baliabideen beharra, zaintzan inbertsio beharra.

Teknologia (aipamen bat egin da, teknologia pertsonen eskura jartzeko bidean).

MAPAKETA

Mapaketa egiteko talde hirutan banatu da, hauek izan dira taldeak:

Lehen taldea:

Andoni, Aitziber,
Maider eta Agurtzane

Bigarren taldea:

Beatriz, Amaia, Miren
Ainhoa eta Itziar.

Hirugarren taldea:

Belen, Jacinta, Oihane,
Xanti.


Talde bakoitzean herriko eragile desberdinak identifikatu, mapan kokatu eta horren inguruko hausnarketa egin da, eragile mota desberdinak kontutan izanik. Era honetara herri zerbitzu eta programak, herriko elkarte eta eragile desberdinak eta azkenik espazio publikoak identifikatu dira.

ZERBITZUAK eta PROGRAMAK

- Etxez-etxeko zerbitzua
- Eguneko zentroa
- Eguneko arreta zerbitzua
- Telelaguntza
- Sendian
- Gizarte zerbitzuak.
- Garraio egokitua
- Taxibusa
- DYA
- Familia eskuhartzeak
- Oroimen tailerrak
- Esperientzia eskola
- Goazen kalera
- Mugiment
- Euskara klaseak
- Osasun ibilbideak
- Ziri-Mara
- KZ gunea
- Jabekuntza eskola
- Laguntza teknikoak
- Igogailua jartzeko udal dirulaguntzak
- Ludoteka (0-6, 6-12)
- Oinherri Herri Hezitzailea

Datozenak

- Txirikorda
- Zaintzadun etxebizitzak



EKIPAMENDUAK

- Jubilatuen etxea
- Kiroldedia
- Udala
- Sutegi liburutegia-KulturEtxea
- Pelaiotena auzo ekipamendu eta emakumeen etxea
- Osasun zentroa
- Zubietako eskola
- Udarregi ikastola
- Lanbide hastapen eskola
- Zubietan lanbide heziketako eskola
- Haur eskola
- Aginagako eskola
- Txokoalde auzoan, Akerra Gaztetxea, Txokoargi
- Potxoenea
- Zubietan: Kaxkape herri lokala*
- Agiña: Eliza zaharra*
- Santuenea: auzo elkartearen lokala + frontoi aldameneko lokala*
- Zubieta eta Aginagako eskola txikiak*
- Beste hainbat lokal: Atxegaldekoa,...*

ELKARTEAK

- Auzo elkarteak (Santuenea, Agina-Elize zaharra, Zubieta – Kaxkate-)
- Jubilatuen elkarteak (Agina, Santuene, Artzabal)
- Baserritarren Kooperatiba
- Odol emaileak
- Caritas
- DYA
- Kafe tertulia
- Ziortza
- Musika taldeak
- Abesbatza
- Noaua
- Zumarte musika eskola
-
- Andatza Mendi elkarte
- Gazte Asanblada
- Kirol elkarteak: txirrindularitza, futbola, pelota, eskubaloia, judo, gimnasia erritmikoa...
- Einean guraso elkarte*
- Orbeldi dantza taldea*
- Ingurumen elkarteak: GuraSOS, Anerreka...*
- Auzoetako jai batzordeak*
- Buztinzulo zeramika taldea*
- kultura arloa: Jexux Artze, ...*
- Ernai gazte mugimendua*
- Tadamun*

**Bilera ondoren gehitutako baliabideak*

DENDAK

- Fruta dendak: Txalaka eta RAI.
- Eroski, BM, Esnaola (Santuenean dagoen auzoko denda)
- Harategiak: Arruti, Otar-goxo
- Arrandegiak: Pello, Mikel
- Belar-denda: Maite
- Txinoen denda
- Arropa-denda: Uribe, Marije*
- Urbil
- Okindegiak: 5 eta auzoetara doana
- Estankoa
- Ferreteria
- Tanatorioa
- Inmobiliaria
- Korreos
- Optika
- Bankuak: rural, kutxa, Laborala, BBVA (etxetik atera ezin dutenek nola moladatu behar dute)
- Fisioterapietak (Irati)
- Podologoa – Oinhutsik
- Masajistik 3
- Ileapaindegiak: Ines, Elexpe, Jubilatuenekoa, Mari Carmen, Intza
- Estetika etxeak: Enar, Lourdes
- Liburu-dendak: Laurok, Itziar, Lizardi*
- Hizkuntza akademiak
- Ikasleei zuzendutako akademia
- Autoeskola
- Farmaziak: plazan eta kutxa ondoan (Bat bera ere ez guardikoa)

TABERNAK

- Txiriboga
- Txirristra
- Bordatxo
- Aitzaga
- Antxeta
- Xarma
- Benta
- Artzabal
- Garagardotegia
- Olarrondo
- Zendoia
- Atxega
- Santuenea: 1 eta jubilatuna
- Patri
- Zubieta: Alamandegia, Berazar, sagardotegiak: Araeta, Iruin, Irigoien.

EREMU PUBLIKOAK

- Artzabal aurreko parkea
- Kalejar: Pelaionea eraikinaren ondoan
- Atxega atzean
- Skate parkea. Bizkarreko eremua.
- Ana –erreka, ibai ondoko paseoa, erreka-txiki
- Sagardo plaza (etorkizun hurbilean interbentzio bat egingo da espazio hau hobetzeko)
- Erreka-txikiko soportalak, Kafa
- Agerrazpi
- Txoko-aldeko paseoa
- Txoko-aldeetik guardaetxeraino
- Txoko-aldeetik Aginagaino (Mapil aldera txukuntzea falta da)
- Santueneko plaza
- Santueneko frontoia
- Santueneko bidea
- Santuenetik zubietara
- Zubietatik Lasartera
- Zubietako plaza
- Txikiardiko parkea- arsuaga
- Txoko-alde elkarteko plaza
- Aginagako kaxkoa

EURIA EGITEN DUENERAKO merkatua jartzen den lekua eta Gizarte Zerbitzuteako soportalak identifikatu dira baina ez dira egokiak ikusten.

Datozenak

- Zumartegiko Ibai-ertza
- Matia aurreko plaza
- Lehen hilerri zaharra zen eremua.

Erabiltzen ez direnak:

- Olanoenea
- Udaletxe aurreko plaza
- Txikiardiko parkea- Arsuaga

**Bilera ondoren gehitutako baliabideak*

MAPAKETAREN HAUSNARKETA

Zerbitzu eta ekipamenduak

Alderdi positibo bezala herrian eskaintza zabala dagoela aipatu da, herria txikia dela kontuan izanda. Oso herri bizia dela uste dute, elkarte asko dago eta behar berrien aurrean atzera egiten ez duen herri bat.

Baliabide publikoak herriaren eskura daudela iritzi dute, Udalak beti baliabide fisikoak eta materialak herritarren eskura jartzen dituela.

Baliabideen kokapenaen inguruan zailtasuna ikusi dituzte, baliabide hauetako asko erdialdean bait dago eta auzoetan ez dago presentzia bera, auzoetan ez daukate baliabide berdinak. Kaxkoa auzoetara edo auzoak kaxkora hurbiltzea erronkatzat jo dute. Irtenbide batzuk oproposatu dira: garraioa, taxibusa, igogailuak edo arrapalak kasu batzuetan eta hor oso garrantzitsua ikusten dute auzo-elkarteen papera, beraiek bait dira gaur egun auzoak eta udalaren lotura. Auzoetako zinegotzi bat egotea ere oso positibotzat jo dute.


Auzo-elkarteak zaintzarako aprobeztatzea ere aipatu da, auzoan gertatzen denaren antena gisa joka dezaten.

Elkarteak, dendak eta tabernak

Herri tamainarako elkarte, denda eta taberna zein jatetxe aukera handia dago.

Batipat erdigunean daude kokatuta, baina auzoak ere erabat ordezkaturik daude elkarte desberdinen aldetik eta berdin zenbait zerbitzu, denda eta elkartzeko gune, elkarte, taberna eta jatetxeekin.

Auzoak ere elkarrekin lotuta daude herriko mugikortasuna errazten duten garraio bideekin.





Eremu publikoak

Zaintzarako espazio publiko egokiak lauak, eserleku erosoekin, euria egiten duenerako estaliak eta udaran itzala izango dutenak bezala definitu dira. Mapaketa egin ondoren honako balorazioa egin da:

- Herrian euria egiten duenerako aterpea falta da.
- Nahiko eremu berde badagoela uste da.
- Zubietarako bideak argitasunik ez du eta estua da.
- Ariketa fisiko egiteko aparaturik ez dago.
- Herrian eremu batzuetan eserlekuak interakzioa errazteko jarriak daude baina leku askotan ez daude ala kokatuta.
- Baratza komunitarioa badaude. Belaunaldi arteko harremanak bultzatzea proposatzen da eta agian inguruan bankuak jari baratza ez dutenak ere bertako parte izan daitezten.
- Auzoetan auzo-elkarteek garrantzi handi dute.

ETXEAN-BIZI PROIEKTUKO BIDEOA

Saioaren amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etxean Bizi proiektuaren bideoa jarri zen, Elgoibar, Errenteria eta Pasaiaiko udaletan Matia Institutuaren zuzendaritzapean egin zen arreta integraleko eredua, pertsonengan ardaztua. Arreta proposamen horrek etxean bizitzen jarraitu nahi duten pertsoneri erantzun nahi die, nahiz eta mendekotasun egoera larrian egon.

Arreta proposamenak zaintzan parte hartzen duten alderdi guztiak balioztatu nahi ditu: zaintzekin konprometitzen diren senide hurbilak izan, zaintzako profesionalak izan, batzuetan oharkabean igarotzen diren etxeko langileak izan. Zaintzak koordinazio soziosanitariotik nahiz hurbileko zerbitzuetatik integratu behar dira aldi berean (esparru publikoko, pribatuko eta mistoko zerbitzuetatik).

Etxean bizi izateko beste modu bat izan nahi du. Norberak nahi duen bezala bizi izatea, nola bizi nahi duen erabakitzeke eta bitzta proiektu hori diseinatzeko behar den laguntzarekin.

Bideoa ikusteko egin klik irudiaren gainean:



EBALUAKETA

Saioaren amaieran ebaluaketa horria bete dute 15 partaideetatik 9k. Hona hemen emaitzak:

AURREIKUSPEN, HELBURU ETA PARTE-HARTZEAREN INGURUAN

	Bai	Ez, zergatik	EE*
1. Bete ditu bilerak zure aurreikuspenak?	9		
2. Lortu dira aurreikusitako helburuak?	9		
3. Parte-hartzeko aukera eman zaidala uste dut	9		

*EE: ez du erantzun

ANTOLAMENDUA

	Egokia	Hobetu daiteke	Zertan hobetu daiteke?
Iraupena	9		
Lekua	9		
Ordutegia	9		
Antolamendua oro har	8	1	Ariketa nola burutu behar zen ez dut nik behintzat argi izan

IRADOKIZUNAK

Gogorarazi ordua eta eguna.

HURRENGO BILERA

irailak 20

15:30etan

Potxonean

The logo consists of the lowercase letters 'm8' in a white, bold, sans-serif font, centered within a solid purple square.

emakumea ta **zaintza** ta...

